



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

Euskararen Kontseilu Sektoriala - Ohiko Bilkura -

Data eta lekua:	2017ko ekainaren 14an Udaletxeko Tokiko Gobernu Batzarraren Gela
Hasiera eta amaiera ordua:	18:00-20:15

BERTARATUAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARITZA: Miren Azkarate_EAJ-PNV (2016 Hiriburutzako, Kulturako, Euskarako eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkaria)

Nerea Txapartegi_EH BILDU

Gotzon Egia_IRABAZI

Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

Dani Goñi_BAGERA ELKARTEA

Oier Basurko-BATZEN

Josune Otxotorena_BERRITZEGUNEA

Sara Gonzalez_ SAN SEBASTIAN SHOPS DONOSTIA

Antonio Casado_EHU

Mikel Aiestaran_GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA

Andoni Iraola_REALA

Ander Aizpurua_KUTXABANK

Jose Javier Murua_LABORAL KUTXA

Maite Asensio_URTXINTXA ko ORDEZKARIA

Oihana San Jose_AEK

Luis Mari Ralla_BIZARRAIN ELKARTEA

Euskara Zerbitzuaren langileak:

Edurne Otamendi (Zerbitzu burua)

Alex Aisa (Atal burua)

EZ ZIREN BERTARATU:

PSE-EEko ORDEZKARIA, ezin etorria adierazi du

PPko ORDEZKARIA

ULIAKO AUZO ELKARTEko ORDEZKARIA

LABeko ORDEZKARIA

Ramon Etxezarreta, ezin etorria adierazi du

Felipe Juaristi, ezin etorria adierazi du



1.- Aurreko bileraren akta onartzea

Aurreko akta onartu da.

2.-“Zurumurruen aurkako estrategia” egitasmoa aurkeztea

Karol Adarraga Kultur Aniztasunaren Bulegoko udal teknikaria etorri da atal honek antolatu duen “ Zurumurruen aurkako estrategia” egitasmoa aurkeztera. Egitasmo honen helburua diskurtso baztertzailerak saihestu eta errefuxiatu zein etorkinen gainean ditugun estereotipoak gainditzea da. Horretarako, hiru prestakuntza saio (ordubeteak) egitea aurreikusten da irailean eta urrian. Saio horietan zurumurrak identifikatu, zurumurruen kudeaketarako estrategiak eman eta horiek gainditzeko gakoak eskainiko dira. Udal teknikariak bertan parte hartzeko gonbita egin die Euskara Kontseiluko kideei.

3.-Hizkuntza gutxituen esparruan Donostia 2016k utzitako legatuaren berri ematea

Kontseilu Sektorialeko lehendakariak adierazi du hizkuntza gutxituen esparruan kultur hiriburutzak landutako proiektu gehienak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hartuko dituela bere gain, betiere egitasmo bakoitza aurrera eraman duen eragilearekin lankidetzan. Egitasmoak: Hitzargiak, Tosta, Hizkuntza Aniztasunen Europako Foroa, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa, Europa bat batean, Itzultzaile Berriak, Beste Hitzak (azken hau Donostia Kulturak hartuko du bere gain), Euskarriak-Hizkuntza Gutxituen mapa.

Azken honi buruz, mapari buruz, Udala aztertzen ari da Bagerak egindako proposamena Nestor Basterretxea plazan zegoen mapa beste leku batean eta gehiago iraungo duen material batean jartzeko.

EH Bilduko ordezkariak adierazi du Tosta egitasmoa dela eta, ikus-entzunezko interesgarria egin zela eta ezagutzera ematea merezi duela. Dokumental horren aurkezpena egin zen arren, jende gutxi inguratu zela eta horren zabalpena egitea merezi duela, Euskararen Egunean esaterako.

Kontseiluko lehendakariak erantzun dio ikus-entzunezko hori Ubik-en izango dela baina bestela ere zabaltzea interesgarria izan daitekeela (Eskoletan, Unibertsitatean eta abar).

4.-Euskara Zerbitzuaren 2017ko egitasmoen berritasun nagusiak aurkeztea

Lehenik eta behin Kontseilu Sektorialaren baitan martxan dauden lantaldeen berri eman da: Merkataritza eta ostalaritzari buruzkoa, Kiroletakoa eta Hizkuntza Jarraibideena (azken lantalde honek lana bukatu duenez, bertan behera geratu da).

Hizkuntza jarraibideen alorrean EH Bilduko ordezkariak azaldu du Tabakalera eta Kursaalako arduradunekin jarraibide horien aurkezpena egitea aurreikusi dela baina merezi duela Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udalak eskutik joatea horretan, biak bazkide baitira erakunde horietan. Lehendakariak erantzun dio Mikel Irizar GFAko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendaria gonbidatu zela aurkezpena eta berak ezin zuenez ordezkoa bidali zuela eta harremanetan daudela.



Ondoren gazteentzako hiru egitasmo aurkeztu dira: Beitu! Buletin digitala, Izarrak Plazara lehiaketa eta Festan Blai egitasmoa.

Bukatzeko Gurasoentzako Unitate didaktikoa aurkeztu da.

Batzeneko ordezkariak adierazi du euskaltegientzat unitate didaktikoa landu den bezala, eskolentzat ere komenigarria izan daitekeela zerbait prestatzea.

Alde horretatik, Urtxintxako ordezkariak adierazi du beraiek unitate didaktikoa prestatu zutela eskolentzako, DBH5 eta 6. mailarako.

Bestalde gogoratu da Tribuaren Berbak telebista saioko materialarekin ere unitate didaktikoa osatuta dagoela eta Bagerak ere Zergatik ez? tailerrak eskaintzen dituela.

EH Bilduko ordezkariak azaldu du curriculumean txertatzea litzatekeela egokiena baina arazoak daudela horretarako.

Berritzeguneko ordezkaria ere iritzi berekoa da, curriculumean txertatuta beharko lukeela iruditzen zaio. Ez du uste unitate didaktiko bat egin behar denik, eskolak hamaika gai baitute kudeatzeko eta ez zaio iruditzen eraginkorra izan daitekeenik.

Euskara Zerbitzuko buruak argitu du Ekolinguia saioak eskaintzen direla azken urteotan helburu horrekin hainbat ikastetxetako ikasleei.

4.-HPSk eta Topaguneak proposatutako "Euskarak 365 egun: hizkuntza ohiturak eta gizarte aktibazioa Euskal Herrian" egitasmoaren berri ematea

Lehendakariak egitasmoaren lerro nagusiak azaldu ditu eta gogoratu du 2017ko Euskararen Nazioarteko Egunean aurkeztuko dela.

Bagerako ordezkariak adierazi du egitasmoa Donostian aurrera eramateko proposamen bat aurkeztuko diola Euskara Zerbitzuari.

EH Bilduko ordezkariak gaineratu du herritarren aktibazioa oso garrantzitsua izango dela egitasmoa arrakastatsua izan dadin eta Egiako esperientziak erakutsi duela lan handia egin behar dela aurretik eta baliabideak beharko direla horretarako.

Lehendakariak erantzun du eragileen, erakundeen eta pertsonen konpromisoa lortzea dela helburua eta hori aurrera eramateko zein baliabide behar diren aztertuko dela.

5.-Soziolinguistika Klusterra Euskal Herriko hainbat erakunde eta eragilerekin garatzen ari den "Jendaurrean erabili" proiektuari buruzko azalpenak ematea.

Egitasmo honen helburua jendaurreko agerraldietan euskarak behar duen presentzia izatea da. Erabileran eragitea da asmoa eta oihartzun handiko eragileak ari dira parte hartzen egitasmoan: Realak, Osakidetza, GFA, Donostiako Udala eta Kutxabank.

Realaren ordezkariaren azaldu du helburua lau lan saioetan estrategia komun bat adostea izan da. Estrategiak eta zailtasunak partekatu dira eta erakunde bakoitzarentzat segurtasun esparrua sortu da. GFAk, bestalde, bide paraleloa erabiliz, hedabideekin mahai bat sortzeko asmoa du, hedabideek ez dezaten ikusi eraso gisa portaera hori. Irailerako emaitzaren bat izatea espero da.

Kutxabankeko ordezkariaren esanetan segurtasun esparrua sortzea eta estrategia komuna izatea funtsezkoa da, enpresa txikiagoek ere jendaurreko agerraldietan estrategia hau aurrera eraman dezaten inolako beldurrik gabe.



Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza, 2 - Tel. 943483750 - Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.eus - www.donostiaeuskaraz.eus - www.donostia.eus
20003 Donostia

Bestalde, Bageraren ordezkariak gogoratu du Hiriko Gizarte Kontseilura joaten dela Euskararen Aholku Kontseiluaren izenean eta bertan jorratzen diren gaiak aldez aurretik kontseiluan bertan landu beharko liratekeela, kontseilu kideek iritzia eman eta ekarpenak egiteko aukerak izan ditzaten.

Gizarte Kontseiluan hiriaren hurrengo Plan Estrategikoa lantzen hasiko dira, egun indarrean dagoena 2020ra artekoa baita. Kritikatu du, era berean, Plan estrategikoa gaztelaniaz jaso dutela bakarrik.

Lehendakariak arrazoia eman dio eta bileran bertan hori zuzentzeko eskaera egin eta Euskara Zerbitzuaren laguntza eskaini zitzaiola azaldu du.

Eta horrela, bilera bukatutzat eman da 20:15ean.